

# 7

## Iñaki Astiasuinzarra Pagola

---

**Data:** 1985/09/25.

**Adina:** 35 urte.

**Non jaioa:** Hernani (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Ez zuen seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Hernaniko tailer batean aritu zen. ETAko kidea zela, Irunen soldadutzan zegoenean atxilotu zuten, baina Loiolako kuarteleko ziegatik ihes egin zuen Baionara (Lapurdi).

**Egilea:** GAL.

**Heriotza-lekua:** Baiona Ttipiko Pannecau kaleko Monbar hoteleko taberna.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Bertan hil ziren beste hiru pertsona ere: Agustin Irazustabarrena Urruzola, Sabin Etxaide Ibarguren eta Jose Mari Etxaniz Maiztegi. Bi erasotzaileak atentatua egin eta hamar minutura atxilotu zituzten. Egun batzuk lehenago GALekin lotutako bi poliziarekin ostatu hartu zuten Donostiako Orly hotelean. Espainian auzipetu zituzten CESIDeko talde operatiboaren buru ohia eta CESIDeko zuzendari ohia.